

"Zapata Gorriak"



"Zapata Gorriak" Arte instalazio kolektibo eta publiko bat da. Munduan emakumeen kontrako indarkeriaren aurrean kontzientzia hartzeko deiadar bat da, erakundeen begirada axolagabearen aurrean erail edo desagertzen ari diren emakume, neska eta gazteei elkartasuna adierazteko modua.

Arte lan honek Ciudad Juarez hirian du sorburua -Chihuahua, Mexiko-, 2009ko abuzturen 22an, eraildako edo desagertutako 33 emakumeren aldeko martxan batean. Pixkanaka, ibilera horri elkartasun pausu gehiago batu zaizkio, gure gizarteetan arazo honek sortzen dituen absentziak eta mina ikustarazteko.

Zapata gorriak memoria kolektiboa da, gogorapen bat, hutsune bat, martxa isil bat, desio bat, gure senideak etxeratzeko irrika.

Elina Chauvet

Oñatin Elina Chauvetek Mexikon 2009an hasitako arte lan kolektibo honen erreplika egiten ari gara bere baimenarekin.

Arte lan hau nazioartekoa da, eta prozesu ibiltarian dago.

Amaitzean zapata pare bat Mexikora bidaliko dugu ekimenaren argazkiekin batera, obraren erregistroan aintzat izan dezaten.

Oñatiko Udaleko Berdintasun Sailak,
herriko Andraitz Talde Feminista eta
Oñatiko Gazte Feministen
ezinbesteko lankidetzan
antolaturiko ekimena,
herritarren parte hartzeari esker gauzatua.

Erail, desagertu, kolpatu, bortxaturiko
emakume guztien oroimenez.
Azkenak izan daitezten.




Oñatiko Udala

AZAROAK 25, EMAKUMEEN GANAKO INDARKERIAREN KONTRAKO NAZIOARTEKO EGUNA

1999 . urtean Nazio Batuen erakundeak horrela izendatua, 54/134 ebazpena, abenduaren 17koa. Egun hau izendatzeko proposamena **Errepublikan Dominikarrak** egin zuen 80 herrialdeen babesarekin. Ekintzaile politikoak ziren **Mirabal ahizpak** omendu nahi izan ziren, 1960 . urtean bortizki erailak, Rafael Trujilloren diktaduran. Tximeletak bezala ezagutzen ziren.

*Emakumeen kontrako indarkeria
giza eskubide urraketa larria da eta
sexuen arteko diskriminazioaren
ondorioa da.*

*Gure esku dago gizarte parekideago
eraikiaz desagerraraztea.*



EMAKUMEEN AURKAKO
INDARKERIARI EZ
NO A LA VIOLENCIA
CONTRA LAS MUJERES